

apaitan ari dira
lusai exerita,
Santa Kurutz eguna
aitzaki artuta.
Andria ta umeak
etxian utzita:
orretxeri nago, ni,
GAIZKI IRITZITA!

Emakume bertsolari ark, ederrak eman zizkien, bere ateraldi zorrotzekin, bi bertsolari arroxka aieri! Ortan dago **BERTSOLARIA-REN NORTASUNA**. Bertsolaria ez da edozein!

ZELETA

LURREAN DAGOAN ERROTARRIARI

(*Dionisio Ridruejo*)

Èsituriko uraren ibilli zuzena
kanta biribil biurtu zan zure kemenean,
arrizko ogia, zure errota dantzarian,
zure egun-senti alaiak nire zuzmurrean.

Gariburuzko eguzkia, zure ezpañak biraka,
negarrezko ezpañak, aztuntasun ariñean,
zure udaberri mingotsa mututzen duala,
illargia illik loren negarrean.

Begira natzaizu, bideko atsedenez,
errotamiñez geldirik utzi
zaitue, diruen oroitzapenez.

Ziklope itun, begia itsuturik
ta ibildari itxurak etorkizun gabe,
aizezko ardatzak igarorik.

OTSALAR'ek euskeratua